

## TESTU KRITIKOA KRISIAK

### SARRERA

Krisia azken urteotan egunero, ia orduro, entzuten dugun kontzeptu bat da eta hau sortu duten faktoreak asko aztertu badira ere, ez dugu uste faktore horietara mugatu behar garenik. Gure fakultatean gai honen inguruan gutxi hitz egiteaz gain, argi dago teoria ekonomiko arruntak analisi honetan mugak dituela. Horregatik garrantzitsua ikusi dugu honen inguruko azterketa bat egitea eta testu xume honen bitartez analisirako faktore gehiago mahai gaineratzea eztabaida eta hausnarketa sustatzeko.

Definizio oso sinplifikatu bat bezala erreproduzio kapitalistan erlazio ekonomikoen eta politikoen akats multzoa da. Definizio honek ezer gutxi azaltzen du eta oso neutroa da baina ideia bat egiteko balio dezake.

### *Zeintzuk dira akats horiek?*

Kapitala era jarraitu baten gainbalioaren produkzioaren bidez hedatzen den balio bezala definitu dezakegu.

$$D-M-D' \quad D' > D$$

Honek, inbertitutako kapitalak ongi funtzionatzeko etekinak eman behar dituela erakusten du.

## D-M/MP eta FT/-P-M'-D'

Kapitalaren zikloak ongi funtzionatzeko, diruaren forma duen kapitala produkzio bitartekoak (MP) eta lan indarra (FT) erosteko erabili behar da prozesu produktiboa gauzatzeko. Honen bitartez merkantziak ekoizten dira, langileen lanak gainbalioa sortzen duelarik. Azkenik merkatu salmentaren bitartez diru forma hartzen du berriz ere.

Krisiaz hitz egiten dugunean hedapen ziklo honen etete batez ari gara, kapitalaren geldialdi batez hain zuzen ere. Kapitala arrazoi desberdinengatik gelditu daiteke, adibidez, aurreikuspen ekonomiko oker batzuk direla eta inbertitzaileek dirua gordetzen dute, etekina lortzeko zailtasunak aurreikusten dituztelako.

Marxen hitzetan:

“Produkzio prozesua geldiune momentu batean sartzen denean eta lan prozesua mugatzean alde batetik guztiz gelditzen dela esan daiteke, kapital erreala suntsitzen duelarik.”

Erabiltzen ez diren makina, saldu ezin diren merkantziak, erabilerarik gabe gelditzen diren eraikinak... ez dira kapitala, hau guztia kapitalaren suntsiketa izanik.

Nabarmendu beharra dago produkzio sistema kapitalistak perturbazio (barne zein kanpo) desberdinak jarraikortasun handiarekin jasaten dituela, baina hauek ez dute beti krisia eragiten. Normalean eragin hauetatik salbu gelditzen da eta metaketarekin jarraitu dezake.

Kapitalismoa sistema konplexua da, interdependentzia mota desberdin askorekin. Horregatik kooperazio sistema bat dela esan dezakegu, betiere batzuk besteen aurka jartzen dituelarik, kapitalistak eta langileak, kapitalistak eta kapitalistak eta langileak langileekin.

Pentsamendu ekonomikoaren bilakaeran krisia azaltzeko 3 linea nagusi bereiz ditzakegu:

### **1) *Ekonomista klasikoena***


Kapitalismoak bere burua era jarraitu baten erreproduzitu dezake. Sistemak ez ditu krisiak, hauek **kanpo faktoreak** direla eta sortzen dira. Ekonomista hauek Laissez Faire eta Sayren legearen aldekoak dira, azken honek eskaintza guztiak bere eskaria sortzen duela sostengatzen du eta beraz gehiegizko produkzioa ezinezkoa dela.

Joera hau teoria ekonomiko burgesean jaun eta jabe izan da, "esku ikusezinaren" teoriaren sorreratik eskariaren teoretara, oreka orokorretik igarota.

Hauen ustez kapitalismoa norbanakoen berezko nahien (konpetentzia, berekoikeria...) errealizazioa ahalbidetzen duen norma sozialaren multzoa da. Gatazka naturalaren irtenbide optimo bezala agertzen da. Kanpoko interbentzio gabe behin eta berriz erreproduzitu den sistema da.

Norbanako bakoitzaren interesak ase nahi izateak ongizate kolektibora (esku ikusezina) eramán gaituela uste dute. Ohikoa da ikuspegi hau duten ekonomialariak komunikabideetan ikustea, krisiaren arrazoa gestio txar batean jartzen dutenak, bankero gaizto batzuen berekoikerian kasu. Inoiz ez dute kapitalismoaren barne funtzionamendua zalantzan jarriko. Argi gelditzen da teoria ekonomiko garaikideetan orain dela 150 urte egindako baieztapenak jarraitzen direla.

Hala ere, azalpen honen mugak azalerratu ziren eta erantzun moduan ziklo ekonomikoen teoria garatu zuten.



Ikusten dugunez 4 fase desberdintzen dira:

**-Errezesioa:** Aktibitate (jarduera) ekonomikoaren gutxipen fase bat da, zeinetan kontsumoa gutxitzen den eta enpresen izakinak handitzen diren (gutxiago saltzen dira). Honek ekoizpenaren jaitsiera eragiten du eta beraz, okupazioarena ere. Gainera, etekinak eta inbertsioak gutxitzen dira, hazkunde ekonomikoa oztopatuz.

**-Depresioa:** Errezesioaren behe-puntuari deritzo, ondorioak txarrenak direnean.

**-Hedaldi:** Hazkunde ekonomikoaren fasea da, produkzioa, okupazioa, kontsumoa, inbertsioa... handitzen direlarik.

**-Krisia:** Hedaldiko hazkunde fasea ezin da betirako mantendu eta hor agertzen da krisia, berriz ere errezesiorantz mugitzen delarik.

Ikuspegi honetatik ekonomia era autorregulatuan ulertzen da, erregulazioa ziklikoa izanik eta ez uniforme.

## **2) Keynesiar ikuspegia**

29ko crack-a kapitalismoaren erregulazio automatikoaren teoria gogor jo zuen. Laissez Faire teoria keynesiarrarengatik aldatu zen.

Keynes lehen azaldutako Sayren legearen aurka agertu zen, honek teoria ekonomikoa ondorio txarretara eraman zuela esanez. Bere ustez aktibitatearen gakoa epe motzeko eskarian dago. Eskari hau kontsumoak (langileena eta kapitalistena) eta produkzio bitartekoen eskariak (kapitalistak) osatzen dute. Langileen eskaria bere soldaten kopurua denez, kapitalisten inbertsio gastuan dago funtsezko faktorea.

Inbertsio hau etekinen aurreikuspenean oinarritzen da, honek hurrengo ondorioetara garamatza:

-Aurreikuspenak oso aldakorrak direla eta ondorioz inbertsioek ez dute espero zuten etekina lortzen.

-Ez daude inbertsio hori zehaztuko duten mekanismo automatikorik. Sistemak bere burua orekatu dezake baina honek ez du langabezia eta inflazioa baztertzen.

Mekanismo automatiko horiek existitzen ez zirela onartuz, keynesiarrek Estatuan ikusten dute Laissez Fairen utopia lortzeko tresna. Bere ustez, estatuaren funtzioa fluktuazio ekonomikoak leuntzea da.

### **3) Ikuspegi Marxista**

Krisien azterketak garrantzi handia du ikuspegi marxistan, bere kontzepzio metodologiko propioaren arabera, (materialismo historikoaren) kapitalismoa ezin da aldaezina den zerbait bezala aztertu. Perspektiba honekin krisiaren mekanismoak eta faktoreak aztertu daitezke. Lehen esan bezala, sistema kapitalista ez da gai bere burua etengabe erreproduzitzeko, bere barne dinamikan dauden kontraesanak krisien eragile izanik. Horregatik, kapitalismoa eta krisia nahitaez banaezinak direla esaten da. Kapitalismoa ez da gai krisiak ezabatzeko, baizik eta, formula eta politika desberdinen bidez hau atzeratzeko. Kontraesan horiek ezin gainditzeak krisiaren azaleratzeak gero eta bortitzagoak izango direla adierazten du.

Honetaz gain, krisiak sistemarentzat beharrezkoak direla onartu behar da, errentagarriak ez diren jarduerak suntsitzen dituelarik. Horregatik, sistema kapitalista enpresa indartsuen sistema bezala ikusten da, lehia horretan ibiltzeko gai ez direnak desagertzen direlarik. Ikuspegi honen barnean 3 teoria desberdin ikus ditzakegu:

#### *Subkontsumoaren teoria*

Lehiak denak denen aurka jartzen ditu eta honen arabera ezin du inork irabazi beste batek ez badu galtzen.

Teoria ortodoxoaren arabera produkzio kapitalistaren helburua kontsumorako ekoiztea da. Kontsumoa da nagusi!

Hau kapitalismoa kritikatzeko arma bihurtu da.

Ekoizpen kapitalistak ez du beharrak asetzea helburu, diruarekin babestutako eskaria asetzea baizik. Sistema ez da gai eskari nahikoa sortzeko, hau da, ezin da ekoiztutako guztia saldu. Horregatik, bere dinamika propioak geldionera daramatza.

#### Zergatik ez du eskari nahikoa sortzeko gaitasunik??

Gizarte baten produktua (aberastasuna) langile eta kapitalisten artean banatzen da. Kopuru bat kapitalistek gordetzen dute ziklo produktiboa berriz hasi ahal izateko. Bestea soldata eta kapitalisten etekinen artean banatzen da. Hau zerbitzu eta ondasunen eskari efektiboaren iturria da.

Langileek ezin dute kontsumora bideratutako guztia erosi, soldata bezala ekoizitakoa baino gutxiago jasotzen dutelako (gainbalioaren teoria). Alde hori soldatek sarreretan duten pisuaren arabera desberdina izango da.

Bestalde, kapitalistek ez dituzte sarrera guztiak zerbitzu eta ondasunetan gastatzen, zati bat ekipo ondasun eta lan indarra erostean gastatzen dutelako, etorkizunean gehiago eta hobeto produzitzeko (ekoizteko). Sozialki ekoiztako guztia ez doa kontsumora, zati bat inbertsiora bideratzen delarik. Momenturen baten inbertsio hori geldituko da, sistemaren erreprodukzioa oztopatuz. Sistemak bere krisia sortu du!

Dinamika propioak kapitalistak inbertitzera behartzen ditu, lehiatu ahal izateko eta era berean ahalik eta soldata txikienak ordaintzeko, ekoiztako guztia kontsumitu ezin dutelarik. Teknologia gero eta produktiboa izango da (inbertsio konstantearen beharra dela eta) subkontsumoaren arazoa larritu egingo da.

Baina teoria honen aurka hedaldi ziklo handiak ikusi izan ditugu historian zehar, batzuek arazo hau kanpo eskari baten bidez konpontzen dela adierazi dute. Hori esfera ez kapitalistatik egingo zen (herrialde ez kapitalistak) baina sistema honen hedapena oso handia izan da eta gero eta merkatu ez kapitalista gutxiago gelditzen dira. Hemendik agertzen da inperialismoa ere, merkatu horiek lortzeko estatu kapitalisten arteko lehia bortitza. Baina horrelako merkatu gutxiago gelditzen dira eta krisiak ekidinezinak eta ohikoagoak bihurtzen dira.

Azken urteetan etekina maximizatzeko helburuarekin soldata errealean gutxitze bat eragin dute, eta ondorioz, ekoiztakoaren zati txikiagoa kontsumitu daiteke, hau maileguen bitartez ekidin da (ekonomiaren finantzazioa).

Langile eta kapitalisten maileguak itzultzeko ezintasuna gertatu da eta ondorioz bankuek maileguak emateari utzi diote. Kontsumitzeko gaitasunaren gutxitze bat eman da (merkantziak ezin erostea) eta guzti honek krisiaren azalratzea bultzatu duela esan daiteke.

#### *Proporzionaltasunari lotutako krisiak*

Egile batzuek krisia sektore desberdinen arteko desoreken ondorio bezala plazaratu dute. Marxek ondasunak sailkatzeko erabili zuen eskema hurrengoa izan zen:

- II Sektorea: beharrezkoak diren beharrak asetzeko balio duten ondasun eta zerbitzuak ekoizten dituen (kontsumo ondasunak). Luxuzko ondasunak hemen sartzen dira ere.
- I Sektorea: Ekoizpen ondasunak (ekipo ondasunak eta makinaria) eta lehengaien sektoreei deritzo.

Ikuspegi honen arabera ekonomiak ongi funtzionatzeko, produkzio ondasunak ekoizten dituzten sektoreak produktore guztiak (makinaria, lehengaiak eta kontsumo ondasunak) asetzeko beharrezkoak diren produkzio bitartekoen kopuru berdina ekoizti behar dute.

Kontsumo ondasunen sektoreak kontsumo guztia asetzeko adina ekoizti behar du, langileriaren lan indarra birproduzitzeko eta burgesiaren kontsumo nahiak aseztu.

I edo II sektoreak besteak baino gehiago ekoiztean, hau da hazkundea orekatua mantentzeko baino gehiago ekoiztean agertuko da krisia.



Lan orduak luzatzearen eta soldataren jaitsieren saiakerak langile borroka indartzea eragin dutenez kapitalistek beste era batzuk bilatu behar izan dituzte, hauen artean produktibitatearen igoera izan da garrantzitsuena esplotazio tasa handitzeko. Hor kokatzen ditugu berrikuntza teknologiko konstanteen beharra, langileko produkzio maximizatzea helburu duena.

Honek prozesu produktiboan kapital konstantearen balio handitzea eragiten du, gainbalio tasaren hazkundea lortu ezean etekin tasa gutxituko delarik. Hemen dago kapitalismoaren paradoxa, zeinetan esplotazio tasa handitzeko era etekin tasa gutxitzea eragiten duen.

Guzti honek kapitalisten arteko lehia bortitza sustatzen du, horrela kapital ahulenak desagertu eta zentralizazio eta kontzentrazioarako joerak indartuz. Horrek monopolio kopurua handitzea eragiten du.

Kapitalarentzat soldata beherantz bultzatzea gero eta beharrezkoagoa da, mekanizazioa handituz edo herrialde txiroetara kapitala esportatuz.

Marxen hitzetan esplotazio tasaren hazkundea gero eta beherakorragoa da gero eta kapital konstante gehiago behar delako etekinak handitzeko. Gainera, gero eta zailagoa da lan indarraren esplotazioa handitzea, klase borrokaren maila eta kontsumo maila minimo bat mantendu behar delako (eragin murrizkorra etekin tasan).

Gainera, esplotazio tasaren aldaketak gero eta eragin txikiagoa du etekin tasan, kapital konstantearen gehikuntza bat ematen delako.

Argi eduki behar dugu ez dugula lege batez hitz egiten baizik eta joera batez. Etekin tasa beherakorraren aurrean kapitalistek hurrengo neurriak erabiltzen dituzte honen eragina murrizteko:

**-Lan errendimendua handitzeko neurriekin:** Lanaren antolaketa berria, kaleratze kostua gutxituz, deskantsurako denbora murriztuz...

**-Estatuaren bidez lege onuragarrien lorpena:** lanaldia malgutuz, kontratatzeetatik subsidioak, segurtasun sozialaren kotizazioen murriztapena...

Hau guztia aztertu eta gero etekin tasa beherakorraren eta hau murrizteko saiakeren arteko tentsio konstante bat ikusi dezakegu, azken hau lortzen ez denean krisia agertzen delarik.

Egoera honetan langileak baldintza txarragoak onartzeko prest agertuko dira, soldata errealak jaitsiz eta lanaldiak intentsifikatuz.

Horrela krisi bakoitzak bere berreskurapena lortzeko faktoreak prestatzen ditu etorkizuneko krisiaren oinarria jartzen duelarik. Zaila da krisia noiz agertuko den jakitea, faktore asko daudelako, baina egoera horretan klase borrokak funtsezko paper bat jokatzen du. Sistemak krisiekiko duen beharra azalduta, langile klasea objetiboki iraultzarako baldintza hobeak dituen momentu hauek baliatu ahal izateko gai izan behar da. Horretarako antolakuntza eta aurreikusten saiatu behar da ahalik eta prestatuen egoteko.

Amaitzeko, Henryck Grossmanen zita bat berreskuratu nahiko genuke, teoria eta praktikaren erlazioa nabarmenduz:

“Nahiz eta oso ahul egon ez da automatikoki eroriko den sistema ekonomikorik. Hau suntsitu behar da. Sistemaren geldiunetara eramaten duten faktoreak aztertuz, honen puntu ahulak

aurkitu ditzakegu. Aldaketa faktore subjektiboen jarduera aktiboarekin bakarrik izango da posible”.

**Testu hau TAIFaren 6.txostenean oinarritu da “Apuntes teóricos para entender la crisis”**

**-2.atala:”Breve introducción a la teoría de la crisis” Josep Manuel Busqueta**

**Bibliografía gehigarria:**

**-HARVEY, D. Los límites del capitalismo y la teoría marxista. Ed. Fondo de Cultura Económica.**

**- SWEEZY, P. Teoría del desarrollo capitalista. Ed. Fondo de Cultura Económica.**

**- GILL, I. Fundamentos y límites del capitalismo. Ed Trotta.**

**- SHAIKH, A. Valor, acumulación y crisis. Ed Tercer mundo editores.**

**- GUERRERO, Diego. Una aproximación polémica a la teoría de la crisis económica.**

**- MANDEL, Ernest. Iniciación a la economía marxista. Ed. Nova Terra**